



II. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Bilbao Musika Toki Erakunde Autonomoa

Lan poltsak 2022-2024 - Espezialitate guztiak. Irakasleentzako lan poltsak handitzekoa. 2024. urteko deialdia.

2023ko abenduaren 22an Bilbao Musika TEAren Gerentziak honako hau erabaki du:

Lehenengoa: Lanpotsak handitzeko arautzen duten oinarriak onartzea.

Bigarrena: Oinarriak www.bilbaomusika.eus orrian argitaratzea eta ebazpen hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialera bidaltzea baliabidezko eskabideak aurkezteko 20 eguneko epea has dadin.

Bilbon, 2023ko abenduaren 22an.—OAL Bilbao Musikako zuzendari kudeatzailea, Ana Isabel Madariaga Ugarte



2024KO DEIALDIA - OINARRI ARAUTZAILEAK

**BILBAO MUSIKA ESKOLARAKO ETA BILBAO MUSIKAREKIN HITZARMENA
SINATU DUTEN ESKOLETARAKO IRAKASLEEN LAN-POLTSAK HANDITZEA****Lehenengoa. — Deialdiaren helburua**

Hautagai berriak sartuz, deialdi honen helburua Bilbao Musika Eskolak 2022an sortutako lan-poltsak handitzea da.

2022ko martxoaren 8ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratutako 2022ko deialdiaren oinarrietan zehazten denez, lan-poltsan zabaltze-deialdien bidez sartzen diren pertsonak dagozkien zerrendetan sartuko dira, 2022ko lan-poltsa osatzen dutenen atzetik (2022ko deialdia eta 2023ko handitzea), balorazio prozesuan lortutako emaitzen ordenaren arabera.

2022ko eta 2023ko behin betiko zerrendetan dauden pertsonen beste inskripzio bat egin ahal izango dute titulazio berriak aurkezteko edo hizkuntza-eskakizuna eguneratzeko. Kasu horietan, zerrendetan titulazioa eta profila eguneratuko dira, aurretik zuten puntuazioari eta posizioari eutsiz.

Deialdia Bilbao Musika Eskolaren webgunean eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Bigarrena. — Datu pertsonalen tratamendua

Hautaketa prozesuko interesdunen datu pertsonalak Bilbao Musika Eskola Tokiko Erakunde Autonomoaren erantzukizunpean tratatuko dira. Prozesua amaitutakoan, hitzarmena sinatu duten eskola guztiei lagako zaizkie datu horiek. Eskabidean, interesdunek baimena eman beharko dute beren datu pertsonalak erakunde sinatzaileei lagatzeko, langileen aldi baterako beharrak estaltzeko.

Datu pertsonalak oinarri hauetan adierazitako xederako soilik tratatuko dira: batetik, hautagaiak hautatzea eta lan poltsetan sartzeta, eta, bestetik, eskatutako eskolei lagatzea datuak, aldi baterako ordezkapenak egiteko.

Eskaerek, izaera pertsonala duten datuen babesari dagokion ondorengo testua edukiko dute:

«Datu Pertsonalak Babesteko indarrean dagoen eta aplikagarria den araudiarekin bat etorritik, jakinarazten dizugu zure datuak Bilbao Musika TEA-aren titulartasuneko tratamendu-sisteman sartuko direla (IFK: P4800034C; egoitza soziala: Sorkunde, 8. 48006-Bilbo (Bizkaia), eta jarraian zerrendatzen direla haien helburuak, kontserbazio-epeak eta legitimazio-oinarriak. Hala eskatzen duten tratamenduetarako, Bilbao Musika TEAk egin nahi dituen lagapenen berri ere ematen da.

Tratamenduaren arduraduna

- Identitatea: Bilbao Musika TEA. IFZ-4800034C.
- Helbidea: Sorkunde 8, 48006-Bilbao.
- Telefonoa: 944 164 785.
- E-mail: zuzendaritza@bilbaomusika.eus
- Datuen Babesaren Ordezkaria: dpd.cliente@conversia.es

Tratamenduaren xedea**Helburua**

Erakundeko plazen deialdi publikoei dagokien informazio pertsonalaren kudeaketa. Bitarteko langileen lan poltsa kudeatzea. Kontrol organoek hautaketa prozesuen ikuskaketa egitea.

Gordetzeko epeak

Zerbitzua ematen den bitartean eta 5 urte gehiago (lan informazioaren laburpena gorde).

*Legitimazioa*

6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Euskadiko Funtzio Publikoari buruzkoa.

DBEOren 6.1.b) artikulua: Tratamendua beharrezkoa da interesduna parte den kontratu bat gauzatzeko edo interesdunaren eskariz kontratuaren aurreko neurriak aplikatzeko.

DBEOren 6.1.c) artikulua: Tratamendua beharrezkoa da tratamenduaren arduradunari aplikagarria zaion lege-eginbeharra betetzeko:

DBEOren 9.2. a) artikulua: tratamendua beharrezkoa bada tratamenduaren arduradunak edo interesdunak lan- zuzenbidearen eta segurtasun eta babes sozialaren alorrean dituen betebeharrak betetzeko eta eskubide espezifikoak egikaritzeko.

5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen Testu Bategina onartzen duena.

Hartzaileak

Bilbao Musika TEA eta bestelako musika eskola publiko zein pribatuaren arteko datuen lagapenerako Hitzarmena sinatu duten musika eskolak.

Eskubideak

Datuen babesari buruz indarrean dagoen eta aplikagarria den araudiak ematen dizkion eskubideen arabera, datuak eskuratzeko, zuzentzeko, tratamendua mugatzeko ezabatzeko, («ahazteko eskubidea»), eramangarritasun erako eta datuen tratamenduaren aurka egiteko eskubideak baliatu ahal izango ditu, bai eta datuok tratatzeko emandako baimena ezeztatzeko eskubideak ere.

Horrelako, gorago adierazitako posta-helbidera edo erkudengarmendia@bilbaomusika.eus helbide elektronikora bidali beharko du eskaera.

Kontrol Agintaritza eskudunera jo ahal izango du, egokitzen jotzen duen erreklamazioa aurkezteko.

OAL Bilbao Musikak jakinarazi du dokumentu hau sinatuta baimen esplizitua ematen duela arestian aipatutako helburuak dituzten datuak tratatzeko.».

Hirugarrena. — Hautagaiek bete beharreko baldintzak

Deialdian onartuak izateko, eta hala badagokio, Lehiaketan parte hartu ahal izateko, parte-hartzaileek ezinbestekoa dute honako baldintza hauek betetzea:

1. Espainiako nazionalitatea edukitzea, Langile Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Lege Bategina onartu duen 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 57. artikuluan ezarritakoa kontuan hartu gabe.
2. 16 urte beteta izatea eta nahitaezko erretirorako adina bete gabe edukitzea.
3. Eskatutako espezialitatearen lanbide titulua/gaikuntza izatea edo eskuratzeko eskubideak ordainduta izatea.

Atzerrian ateratako tituluarekin batera, Hezkuntza Ministerioak berori onartzeko emandako agindua aurkeztu beharko da, edo bestela onarpen ofiziala egiaztatzen duen ziurtagiria.

Espezialitate batzuetan, dela titulurik edo gaikuntzarik ez dagoelako, dela espezialitatearen barruan gaitasun espezifiko bat menderatzea eskatzen delako, gaitasun proba bat egingo da. Proba hori ariketa bakarra izango da, eta espezialitateko irakasgaiak ondo menderatzen direla egiaztatu beharko da.

1. eranskinean espezialitate bakoitzerako eskatzen diren tituluak/gaikuntzak agertzen dira, bai eta gaitasun-proba bat gaingitu behar duten espezialitateak ere.
4. Euskararen derrigorrezko hizkuntza gaitasuna ezarrita duten lanpostuen kasuan, eskatzen den perfila egiaztatzea.
5. Disziplinako espediente batekin zeinahi Herri Administrazioiko edo Autonomia Erkidegoetako organo konstituzional edo estatutu organotako zerbitzuetatik bereizi



gabea izatea, edo ebazpen judizial batekin enplegu edo kargu publikoetarako erabateko gaitasungabetzea edo gaitasungabetze berezirik ez izatea, baldin eta funtzionario taldera edo eskalara sartu nahi badu, edo lan kontratudunaren kasuan, baldin eta bereizi edo gaitasungabetu aurretik gauzatzen zituenaren antzeko funtzioak egikaritu nahi baditu.

Beste estaturen batekoa izanez gero, gaitasungabetuta edo antzeko egoeraren batean ez egotea, eta bere estatuan enplegu publikoan jardutea galarazten dion diziplinazko zigorrak edo antzekorik jaso gabea izatea.

6. Lanpostuetako zereginak behar bezala gauzatzeko gaitasun funtzionala izatea.

Laugarrena. — Eskabide orriak aurkeztea. merezimenduak alegatzea eta egiaztatzea

Onarpena eskatzeko eskabideak, baloratu beharreko merezimenduen zerrenda eta horien egiaztapena, bi modutan aurkeztu ahal izango dira:

- Elektronikoa: www.bilbaomusika.eus webgunean eskuragarri izango duen aplikazio informatikoaren bidez.
- Paperezkoa: 3. eranskinean dagoen formularioaren bidez. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aipatzen diren lekuetan aurkeztu ahal izango da.

Landu nahi den espezialitate bakoitzeko eskabide orri bat aurkeztu beharko da, dagozkion merezimenduen alegatzearekin batera espezialitate horretarako.

Eskabide orriak aurkezteko epea hoguei egun baliodunekoa izango da, honako deialdi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita.

Ahal dela, eskabideak elektronikoki aurkeztuko dira. Parte hartzeko baldintzak eta, hala badagokio, alegatutako merezimenduak honela egiaztatu beharko dira:

- Nortasuna eta nazionalitatea egiaztatzen dituen agiria – NISAEn kontsultatzeko baimena emanez (euskal administrazio publikoen artean datuak trukatzeko nodoa, baita administrazio horien eta estatuko gainerako administrazioen artean ere).
- Titulazioa / Gaikuntza / Euskera – NISAEn kontsultatzeko baimen bidez.
- Desgaitasun-maila – Desgaitasun-ziurtagiriaren bidez (1971/1999 Errege Dekretua, abenduaren 23koa).

Bosgarrena. — Hautagaiak onartzea

Eskabide orriak aurkezteko epea amaitu ondoren, eskumena daukan Bilbao Musika TEAko organoak espezialitate bakoitzean onartutako eta baztertutako hautagaien behin-behineko zerrendak onartuko ditu, eta hala badagokio, baztertutakoak baztertzeko izan diren arrazoiak adierazi beharko ditu. Zerrendak, hain zuzen, TEAren eta udal lankideen iragarki tauletan argitaratuko dira, eta baita udalen web orrietan ere.

Interesdunek 10 laneguneko epea izango dute baztertzeko arrazoitzat jotako akatsak edo egin gabeak konpontzeko edo zerrendaren aurkako erreklamazioak jartzeko.

Onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrendak automatikoki behin betiko bihurtuko dira, baldin eta erreklamaziorik aurkeztu ez bada. Erreklamazioak jarritz gero, beste ebazpen baten bitartez onartu edo baztertuko dira. Eta ondorioz, onartutako eta baztertutako hautagaien behin betiko zerrendak osatu, eta goian aipatutako moduan argitaratuko dira.

Antzemandako egitatezko okerrak edozein momentutan zuzendu ahal izango dira, ofizioz edo interesdunak hala eskatuta. Ez dira egitatezko okertzat hartuko merezimenduak eskabide orrian ez zerrendatzea edo merezimenduak egiaztatzen dituzten agiriak eskabide orriarekin batera ez aurkeztea.

Seigarrena. — Alegatutako dokumentazioa eta merezimenduak egiaztatzea

Eskabideak alegatutako merezimenduen zerrenda jaso beharko du. Ez da baloratu bertan alegatutakoez bestelako merezimendurik, eta eskabideak aurkezteko epea



amaitu baino lehen eginak izan beharko dute. Alegatutako merezimenduak, eskatzen diren unean agiri bidez egiaztatzen ez badira, ez ditu kontuan hartuko Epaimahai Kalifikatzaileak.

Eskabidearekin batera alegatutako merezimenduen zerrenda aurkezten ez bada, ezin izango da zuzendu.

Eskatzaileek baimena eman beharko dute NISAEn kontsulta dezaten (euskal administrazio publikoen artean datuak trukatzeko nodoa, baita administrazio horien eta estatuko gainerako administrazioen artean ere), bai parte hartzeko baldintzak, bai alegatutako merezimenduak. Ez baduzu baimen hau ematen dagozkion agiriak erantsi beharko dituzu.

Eskatzaileek 20 egun balioduneko epea izango dute, Onartuen eta Baztertuen behin betiko zerrendak onartzen direnetik, alegatutako dokumentazioa eta merezimenduak egiaztatzeko.

Balorazio-batzordeak edozein unetan eskatu ahal izango du dokumentazio osagarria aurkezteko, parte hartzeko baldintzak eta, hala badagokio, alegatutako merezimenduak egiaztatzeko.

Epaimahai kalifikatzaileak edo, geroago, ordezkapen-kontratu bat formalizatzean, eskola edo udal kontratatzaileak parte hartzeko baldintzak eta, hala badagokio, alegatutako merezimenduak agiri bidez egiaztatzeko eskatu ahal izango du.

Zazpigarrena. — Balioespen batzordeak espezialitateka

1. Balioespen Batzorde bat eratuko da espezialitate bakoitzerako.
2. Balioespen Batzorde bakoitza, honako kide hauek osatuko dute, eta guztiek izango dute hitza eta botoa:

— Lehendakaria: Bilbao Musika Tokiko Erakunde Autonomoaren kudeatzailea edo eskuordetzen duen langile publikoa izango da Batzordeko Lehendakaria.

— Batzordekideak: Bilbao Musika TEAko hiru langile publiko edo horretarako lankidetza hitzarmena sinatu duten udaletako hiru langile izango dira Batzordekideak.

Espezialitateko titulua izan beharko dute edo, bestela, antzeko espezialitatekoa.

— Idazkaria: Bilbao Musika TEAko kudeaketako zuzendariordea edo eskuordetzen duen langile publikoa izango da idazkaria, hitz eta botoarekin.

Dagozkien ordezkoez ere osatuko dute Batzordea, eta horiek ere titularrekin batera izendatu beharko dira.

3. Batzordeko kideak baztertu egin ahal izango dira 40/2015 Legearen, urriaren 1ekoaren, Sektore Publikoko Araubide Juridikoari buruzkoaren, 23. eta 24. artikuluetan aurreikusitako inguruabarretan badaude edo hautagaiak hautaprobetarako prestatu badira deialdia argitaratu aurreko bost urteetan.

4. Gaitasun, konpetentzia eta prestakuntza egokia duten emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua egongo da batzordean, 4/2005 Legearen, otsailaren 18koaren, Emakumeen eta Gizonen berdintasunari buruzkoaren, 20.6. artikuluari jarraituz. Hala ere, parte hartzaileak izendatzean, kide guztiak elebidunak izan daitezzen zainduko da.

5. Balioespen Batzordeen jarduketak une oro jarraituko die aipatutako 39/2015 Legean, urriaren 1ekoan, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoan, jasotako kide anitzeko organoei buruzko xedapenei.

6. Batzordeak ezingo dira eratu eta beronek ezingo du jardun, baldin eta kide titular edo ordezkoen erdiak baino gehiago agertzen ez badira. Bide batez, ezinbestekoa da Lehendakaria eta Idazkaria bertan izatea.

7. Bertan daudenen boto gehiengoarekin hartuko dira erabakiak. Berdinketa egoz gero, ordeza, Lehendakariaren kalitateko botoak ebatziko du.

8. Balioespen Batzordeek erabateko autonomia funtzionala izango dute, prozeduraren legezketasunaren alde jardungo dute eta objektibotasuna bermatzeaz arduratu beharko dute. Era berean, ordenamendu juridikoarekin bat eginda, Oinarriak aplikatzean



sor daitezkeen zalantza guztiak ebatziko dituzte eta Lehiaketa behar bezala joan dadin beharrezko erabakiak hartuko dituzte. Horretarako, aurreikusi gabeko kasuetan hartu beharreko irizpideak xedatu beharko dituzte.

9. Hautapen prozesuko zeinahi unetan, Balioespen batzordeek jakiten badute hautagaietakoren batek ez duela betetzen honako deialdi honetan eskatutako baldintzetako bat, interesdunari entzun ondoren, hautagaia baztertzeko proposatu beharko dio dagokion Organoari. Horretarako, hautagaiak eskaeran egindako zehaztasunik ezen eta faltsukerien berri eman beharko dio.

Zortzigarrena. — Gaitasun probak

Espezialitate batzuetan, dela titulurik edo gaikuntzarik ez dagoelako, dela espezialitatearen barruan gaitasun espezifiko bat menderatzea eskatzen delako, gaitasun proba bat egingo da. Proba hori ariketa bakarra izango da, eta espezialitateko irakasgaiak ondo menderatzen direla egiaztatu beharko da.

Espezialitateak eta gaitasun-probak honako hauek dira:

- *Espezialitatea*: Informatika musikala (audio, MIDI eta musika ekoizpena) irakaslea.
- *Proba*: Idatziz edo ahoz erantzutea epaimahaiak gai hauei buruz egokitzen jotzen dituen galderak: audioa, midi eta musika ekoizpena.
- *Espezialitatea*: Informatika musikala (partitura edizioa) irakaslea.
- *Proba*: Idatziz edo ahoz erantzutea epaimahaiak gai hauei buruz egokitzen jotzen dituen galderak: partiturak, edizioa, programak (Finale, MuseScore, Sibelius), xml.
- *Espezialitatea*: Kontserbatorioetarako piano laguntzailea.
- *Proba*: Errepertorioko klase bat ematea epaimahaiak ematen duen materialarekin.

Bederatzigarrena. — Merezimendu lehiaketa

Merezimenduak aintzat hartzea (gehienez 10 puntu)

Eskabide orriak aurkezteko epea amaitzearekin batera, honako merezimendu hauek hartuko dira aintzat, baldin eta Seigarren Oinarrian adierazitako epeen barruan edo moduan alegatu eta egiaztatu badira.

1. Ikasketa tituluak

Hautapen prozesuan onartzeari kalterik eragin gabe, ikasketa titulu jakin bat edukitzea ezinbestekoa izan liteke lan poltsan dauden pertsonen lan eskaintza batean parte hartzeko; betiere, dagokion erakundeak lanposturako xedatutako baldintzen arabera.

Lehiaketari begira, ikasketa tituluak merezimendu gisa hartuko dira, gehienez ere 10 puntu, honela bereizita:

- a) Goi Mailako Titulua.
 - Landu nahi den espezialitateko Goi Mailako Titulua edukitzeagatik: 5 puntu.
 - Musikarekin, dantzarekin edo/eta pedagogiarekin zuzenean lotutako beste espezialitate batzuetako Goi Mailako Tituluak edukitzeagatik, berriz, 2 puntu titulu bakoitzeko, gehienez ere 4 puntu.
- b) Irakasle titulua. (66ko Planeko Erdi Maila).
 - Landu nahi den espezialitateko Irakasle titulua (66ko Planeko Erdi Maila) edukitzeagatik: 3 puntu.
 - Musikarekin, dantzarekin eta/edo pedagogiarekin zuzenean lotutako beste espezialitate batzuetako Erdi Mailako Tituluak edukitzeagatik: Puntu 1 titulu bakoitzeko, eta gehienez ere, 2 puntu.
- c) Musikarekin, dantzarekin eta/edo pedagogiarekin zuzenean lotutako beste espezialitate batzuetako titulu profesionalak.
 - Musikarekin, dantzarekin edo/eta pedagogiarekin zuzeneko lotura duten LOGSEko erdi mailako tituluak edo LOE profesionala edo gaikuntza ofizialak har-



tuko dira aintzat (289/92 Dekretua): titulu bakoitzeko 0,5 puntu, eta gehienez ere, puntu 1.

Espezialitate bereko titulu bat baino gehiago izanez gero, kategoria handienekoa bakarrik baloratuko da.

Hamargarrena.—Euskararen ezagutza

Euskararen hizkuntza eskakizun jakin bat edo pareko titulu edo egiaztagiriren bat edukitzea, bestalde, lan eskaintza batean parte hartzeko baldintzetako bat izan liteke; betiere, dagokion erakundeak lanposturako onartutako eskakizunen arabera.

Deialdi honen arabera, era honetan hartuko da aintzat euskararen ezagutza:

- 4. Hizkuntz Eskakizuna egiaztatuta edukiz gero: 2 puntu. Finkatutako puntu kopuru osoaren %20.
- 3. Hizkuntz Eskakizuna egiaztatuta edukiz gero: 1,5 puntu. Finkatutako puntu kopuru osoaren %15.
- 2. Hizkuntz Eskakizuna egiaztatuta edukiz gero: puntu 1. Finkatutako puntu kopuru osoaren %10.
- 1. Hizkuntz Eskakizuna egiaztatuta edukiz gero: 0,5 puntu. Finkatutako puntu kopuru osoaren %5.

Hizkuntz eskakizun horien parekoak izango dira 4. Eranskinean ageri diren tituluak eta egiaztagiriak, euskararen ezagutza egiaztatzeko tituluak eta ziurtagiriak baliozko-tzeari eta horiek Hizkuntzen Erreferentziarako Europako Esparru Bateratura egokitzeari buruzko azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuan xedatutakoarekin bat eginda. (2010eko azaroaren 15eko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, 219. zenbakia).

Hamaikagarrena.—Balioespenaren behin-behineko emaitzak eta sailkapen hurrenkera

Baloratutako pertsonak zerrendetan sartuko dira lortutako puntuazioaren hurrenkerrari jarraituz, baina puntuazio hori zerrendetan agertu gabe.

Hautagaiak 2022ko eta 2023ko prozesuetan hautatutakoen ondoren jarriko dira. Horretarako, 2024ko puntuazio-gidalerro hauek ezartzen dira:

Izangai bakoitzaren kalifikazioa osatuko dute dagokien espezialitateko merezimendu lehiaketan lortutako puntuazioek, eta kalifikazio horren arabera ezarriko da Poltsako izangaiei lehentasun ordena, profil profesional espezifikoei (musikako goi-mailako titulazioa, 66ko planeko musika-irakaslea edo habilitazioa) eta hizkuntza eskakizunekin (1, 2, 3 eta 4) batera; eta zerrenda berezituak egingo dira hizkuntza eskakizuna nahi-taezkoa edo merezimendu gisa balioestekoa duten lanpostuetarako. Bi gai horiek agiri bidez egiaztatuta egon beharko dute hautapen prozesuan.

Puntuazioetan berdinketa egonez gero, honako irizpide hauen arabera erabakiko da sailkapen ordena:

- a) Onartuen zerrendan sexu bateko pertsonak beste sexukoak baino %40 gutxiago baldin badira, gutxien ordezkaturako dagoenaren alde.
- b) Dagokion espezialitatearena baino goi mailagoko titulua duenaren alde.
- c) Administrazioko organo eskudunak aitortutako %33ko elbarritasun maila edo handiagoa duela egiaztatu den duenaren alde.
- d) Espezialitateari dagokion titulu egiaztatua berriki ateratakoa duen hautagaia- ren alde.
- e) Berdinketak jarraitzen badu, berdinketa zozketa bidez ebaziko da.

2022ko eta 2023ko behin betiko zerrendetan dauden eta titulazio berriak aurkezteko edo hizkuntza-eskakizuna eguneratzeko inskripzio berria egin duten pertsonen kasuan, titulazioa eta hizkuntza-eskakizuna eguneratuko dira zerrendetan, aurretik zuten puntuazioari eta posizioari eutsiz.



Balioespenaren behin-behineko emaitzak eta hautagaiek lan poltsetan duten sailkapen hurrenkera Bilbao Musika TEAren iragarki taulan eta erakunde horrek duen webgunean argitaratuko dira. Era berean, lehenengo oinarrian aipatutako lankidetzak hitzarmena sinatu duten erakundeen web orrietan ere argitaratu ahal izango dira.

Hamabigarrena. — Behin betiko emaitzak

Egonez gero, erreklamazioak aztertu, eta ondoren, Balioespen Batzordeek hautapen prozesuaren behin betiko emaitzak argitaratuko dituzte, eta dagokion proposamena helaraziko dio eskumena daukan TEAko organoari, hark espezialitate guztietako lan poltsak onar ditzan.

Hamahirugarrena. — Baldintzak egiaztatzea

Hautatutakoek honako dokumentazio hau aurkeztu beharko dute, kontratatu aurretik:

1. Osasun ziurtagiria

Hautagaiari osasun prestazio publikoak ematen dizkion erakundeak emandakoa. Bertan, argi adierazi beharko da hautagaiak baduela zereginak gauzatzeko gaitasun funtzionala eta ez duela zeregin horretan jardutea galaraziko dion inolako gaixotasun edo muga fisiko zein psikikorik.

2. Zinpeko aitortpena edo promesa

Diziplinako espediente batekin zeinahi Administrazio Publikoko edo Autonomia Erke-degoetako organo konstituzional edo estatutu organotako zerbitzuetatik bereizi gabea dela, edo ebazpen judizial batekin enplegu edo kargu publikoetarako erabateko gaitasungabetzea edo gaitasungabetze berezirik ez duela egiaztatzen duen zinpeko aitortpena edo promesa, baldin eta bereizi edo gaitasungabetu aurretik gauzatzen zuen funtzionario taldera edo eskalara sartu nahi badu. Era berean, ezintasunarekin edo bateraezintasunarekin lotutako legezko arrazoiren bat ez duela egiaztatzeko zinpeko aitortpena edo promesa ere aurkeztu beharko da.

Espainiar herritartasuna ez duenak, berriz, gaitasungabetuta edo pareko egoeraren batean ez dagoela eta bere Estatuan enplegu publikoan jardutea galarazten dion diziplina zigorrak edo antzekorik jaso ez duela egiaztatzeko zinpeko aitortpena edo promesa aurkeztu beharko du.

Natura Sexualeko Delitu Ziurtagiria Irakasle lana egiteko beharrezkoa da. Informazio gehiago www.mjjusticia.gob.es.

Hautagaiak ez badu dokumentazio hori aurkezten edo dokumentazioa aztertuta erabakitzen bada ez duela betetzen Hirugarren Oinarrian eskatzen diren baldintzetakoren bat, ezingo du lan poltsan sartu edo dagokion enpleguan jardun. Gainera, bere jardun denak ezeztatuta geratuko dira, parte hartzeko eskaeran adierazitako faltsukeriengatik izan dezakeen erantzukizunari kalterik eragin gabe.

Arestian aipatutakoari kalterik eragin gabe, dagokion erakundeak lan eskaintzan parte hartzen duen pertsonari eska diezaioke lan poltsetan parte hartzeko beharrezko baldintzak bete ahal izateko dokumentu egiaztagarrietakoren bat eguneratzeko, baldin eta lehiaketa amaitzen denetik lan enplegua eskaintzera bitartean pasatutako denborak horrela eskatzen badu.

Era berean, erakunde interesdunak, lan eskaintza formalizatu aurretik, hizkuntza ofiziala gaztelania ez duten estatueto herritartasuna duten hautagaiei eska diezaike hizkuntza hori behar bezala ezagutzen ote duten egiaztatzeko.

Hamalagarrena. — Gorabeherak

Balioespen Batzordeek eskumena du sortutako zalantzak argitzeko eta hautaketa prozesua ondo doala bermatzeko beharrezko erabakiak hartzeko.

Oinarri hauetan aurreikusi ez denerako, hautaketa prozesuek jarraituko diote 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuan, urriaren 30ekoan, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testuategina onartzen duenean; 6/1989 Legean, uztailaren



6koan, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoan; 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuan, abuztuaren 30ekoan, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen estatutuaren testu bategina onartzen duenean; 364/1995 Errege Dekretuan, martxoaren 10ekoan, Estatuko Administrazioaren Zerbitzuan Langile izateko Araudi Orokorra onartzen duenean; eta 861/1997 Dekretuan, apirilaren 15ekoan, xedatutakoari.

Hamabostgarrena. — *Aurka egiteak*

Deialdi hau, haren Oinarriak, eta bertatik eta Balioespen Batzordeetatik eratorritako egintza administratibo guztien aurka egin ahal izango dira, 39/2015 Legean, urriaren 1ekoan, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoan, aurreikusitako moduan eta kasuetan.



1. ERANSKINA / ANEXO 1 ESPEZIALITATEAK / ESPECIALIDADES

Espezialitatea / Especialidad	Titulua / Título
Abesbatzako Kantu Irakaslea / Profesorado Canto Coral	Abesbatzen zuzendaritza - Kantua Dirección de Coros - Canto
Akordeoi Irakaslea / Profesorado Acordeón	Akordeoa / Acordeón
Alboka Irakaslea / Profesorado Alboka	Albokarako emandako gaitasuna Habilitación Alboka
Bakarkako Kantua Irakaslea / Profesorado Canto Solista	Kantua - Jazza (Kantua) Canto - Jazz (Canto)
Bateria Irakaslea / Profesorado Bateria	Jazza (Bateria) - Bateriarako emandako gaitasuna Jazz (Batería) - Habilitación Batería
Baxu Elektriko Irakaslea / Profesorado Bajo Eléctrico	Jazza (Baxua) - Baxurako emandako gaitasuna Jazz (Bajo) - Habilitación Bajo Eléctrico
Biola Irakaslea / Profesorado Viola	Biola / Viola
Biolina Irakaslea / Profesorado Violín	Biolina / Violín
Biolontxelo Irakaslea / Profesorado Violoncello	Biolontxelo / Violoncello
Bonbardino/Tuba Irakaslea / Profesorado Bombardino/Tuba	Bonbardinoa - Tuba Bombardino - Tuba
Dantza Klasiko Irakaslea / Profesorado Danza Clásica	Dantza Klasikoa / Danza Clásica
Dultzaina Irakaslea / Profesorado Dulzaina	Dultzainarako emandako gaitasuna Habilitación Dulzaina
Euskal Dantza Irakaslea / Profesorado Euskal Dantza	Euskal Dantzarako emandako gaitasuna Habilitación Euskal Dantza
Fagot Irakaslea / Profesorado Fagot	Fagota / Fagot
Flauta Irakaslea / Profesorado Flauta	Flauta
Gaur Egungo Dantza Eta Sormen Dantza Irakaslea / Profesoro- rado Danza Contemporánea Y Danza Creativa	Gaur Egunekeo Dantza / Danza Contemporánea
Gitarra Elektrikoa irakaslea / Profesorado Gitarra Eléctrica	Gitarra Elektrikoa - Jazza (Gitarra) - Gitarra Elektrikorako emandako gaitasuna Guitarra Eléctrica - Jazz (Guitarra) - Habilitación Guitarra Eléctrica
Gitarra irakaslea / Profesorado Guitarra	Gitarra / Guitarra
Harmonia, Analisi eta Konposizio Oinarrien irakaslea / Profe- sorado de Armonía, Análisis y Fundamentos de Composición	Konposizioa / Composición
Informatika Musikala (audio, MIDI eta musika ekoizpena) irakaslea / Profesorado Informática Musical (audio, midi y producción musical)	Gaitasun proba (ikusi 8. basea) / Prueba de aptitud (ver base 8)
Informatika Musikala (partitura edizioa) irakaslea / Profesorado Informática Musical (edición partituras)	Gaitasun proba (ikusi 8. basea) / Prueba de aptitud (ver base 8)
Jotzaileak: piano laguntzailea / Intérpretes: piano acompaña- nte para Conservatorio	Pianoa + Gaitasun proba (ikusi 8. basea) / Piano + Prueba de aptitud (ver base 8)
Espezialitatea / Especialidad	Titulua / Título
Klabe irakaslea / Profesorado Clave	Klabea / Clave
Klarinete irakaslea / Profesorado Clarinete	Klarinetea / Clarinete
Konboa/musika modernoko beste gaiak irakaslea / Profesora- do Combo/otras asignaturas de música moderna	Jazza - Hainbat joeratako instrumentuetarako / musika moder- norako emandako gaitasuna Jazz - Habilitación en instrumentos de tendencias diversas / música moderna



Espezialitatea / Especialidad	Titulua / Título
Kontrabaxua irakaslea / Profesorado Contrabajo	Kontrabaxua - Jazza (Kontrabaxua) Contrabajo - Jazz (Contrabajo)
Mokodun Flauta irakaslea / Profesorado de Flauta de Pico	Mokodun Flauta / Flauta de Pico
Musika eta Mugimendua irakaslea / Profesorado Música y Movimiento	Musika Hizkuntzaren eta Hezkuntzaren pedagogia — 1. mailako gaitasuna Pedagogía del Lenguaje y de la Educación Musical — Habilitación en nivel I
Musika Hezkuntza Goiztiarra (0-3 urte) / Profesorado Educación Musical Temprana (0-3 años)	Musika Hizkuntzaren eta Hezkuntzaren Pedagogia Pedagogía del Lenguaje y de la Educación Musical
Musikaren Historia irakaslea / Profesorado Historia de la Música	Musikologia / Musicología
Musika Hizkuntza irakaslea / Profesorado Lenguaje Musical	Musika hizkuntza - Musika Hizkuntzaren eta Hezkuntzaren Pedagogia Solfeo - Pedagogía del Lenguaje y de la Educación Musical
Musikoterapia irakaslea / Profesorado Musicoterapia	Musikoterapia titulazioa Unibertsitate europarra emanda Titulación de Musicoterapia emitida por universidad europea
Oboe irakaslea / Profesorado Oboe	Oboea / Oboe
Organo irakaslea / Profesorado Órgano	Organoa / Órgano
Pandero irakaslea / Profesorado Pandero	Panderorako emandako gaitasuna Habilitación Pandero
Perkusio irakaslea / Profesorado Percusión	Perkusioa / Percusión
Piano irakaslea / Profesorado Piano	Pianoa / Piano
Piano Jazz Teklatuak irakaslea / Profesorado Piano Jazz Teclados	Jazza (Pianoa)- Teklatuetarako / Pianoa Joera Berrietarako emandako gaitasuna Jazz (piano) - Habilitación en Teclados / Piano Nuevas Tendencias
Saxofoi irakaslea / Profesorado Saxofón	Saxofoia / Saxofón
Talde instrumentalak irakaslea / Profesorado conjuntos instrumentales	Orkestra Zuzendaritza / Dirección Orquesta
Trikitixa irakaslea / Profesorado Trikitixa	Trikitixarako emandako gaitasuna Habilitación Trikitixa
Tronboia irakaslea / Profesorado Trombón	Tronboia / Trombón
Tronpa irakaslea / Profesorado Trompa	Tronpa / Trompa
Espezialitatea / Especialidad	Titulua / Título
Tronpeta irakaslea / Profesorado Trompeta	Tronpeta / Trompeta
Txalaparta irakaslea / Profesorado Txalaparta	Txalapartarako emandako gaitasuna Habilitación Txalaparta
Txistu-txirula irakaslea / Profesorado Txistu-txirula	Txistua / Txistu
Titulazio baldintzak honako lege testu hauetan ezarritakoak izango dira, Musika eta Dantza Ikastetxearen izaeraren arabera: — 289/1992 Dekretua, urriaren 27koa, Euskal Autonomia Erkidegoan Musika Eskola direlako arautu gabeko berriarazko musika irakaskuntzarako ikastetxeak sortu eta jardunean jartzeko balio izango duten oinarritzko arauak ezartzen dituena. — 229/2007 Dekretua, abenduaren 11koa, dantza ikasketa profesionalen curriculum eta ikasketa horietan sartzeko probak ezartzen dituena. — 252/2007 Dekretua, abenduaren 26koa, dantza ikasketa profesionalen curriculum eta ikasketa horietan sartzeko probak ezartzen dituena. — 421/1992 Foru Dekretua, abenduaren 21ekoa, Musika eta Dantza Eskolen sortzea eta funtzionamendua zuzenduko duten oinarritzko arauak ezartzen dituenear.	Los requisitos de titulación serán los establecidos en los siguientes textos legales dependiendo de la naturaleza del Centro de Enseñanza Musical y Danza: — Decreto 289/1992, de 27 de octubre, por el que se regulan las normas básicas por las que se regirán la creación y funcionamiento de los Centros de enseñanza musical específica, no reglada, Escuelas de Música, en la Comunidad Autónoma de Euskadi. — Decreto 229/2007, de 11 de diciembre, por el que se establece el currículo de las enseñanzas profesionales de música y el acceso a dichas enseñanzas. — Decreto 252/2007 de 26 de diciembre por el que se establece el currículo de las enseñanzas profesionales de Danza y el acceso a dichas enseñanzas. — Decreto Foral 421/1992, de 21 de diciembre, por el que se establecen las normas básicas por las que se regirá la creación y funcionamiento de las escuelas de música y danza.



2. ERANSKINA / ANEXO 2

**HITZARMENA IZENPIDETU DUTEN ERAKUNDEAK
INSTITUCIONES FIRMANTES DEL CONVENIO**

Aguraingo Udaleko Zortziko Musika Eskola	Escuela Municipal de Música de Agurain Zortziko
Dulantzi Musika Eskola	Escuela de Música Pública Dulantzi
Altsasuko Musika eta Dantza Patronatua	Patronato de Música y Danza de Alsasua
Andoaingo Udala	Ayuntamiento de Andoain
Beasaingo Udal Loinatz Musika Eskola	Escuela Municipal de Música Loinatz de Beasain
Isidoro Fagoaga Udal Musika Eskola - Bera	Escuela Municipal de Música Isidoro Fagoaga - Bera
Bermeoko Udala	Ayuntamiento de Bermeo
Donostiako Musika eta Dantza Eskola	Escuela Municipal de Música y Danza de San Sebastián
Durangoko Bartolome Ertzilla Erakundea	Fundación Bartolome Ertzilla de Durango
Eibarko Juan Bautista Gisasola Musika Eskola	Escuela de Música Juan Bautista Gisasola de Eibar
Erandioko Musika Eskola	Escuela de Música de Erandio
Erreterria Musikal Udal Musika Patronatua	Patronato Municipal de Música Erreterria Musical
Galdakaoko Musika Jardueren Udaltegia erakunde autonomoa	Organización autónoma del Centro Municipal de Actividades Musicales de Galdakao
Segundo Olaeta Musika Eskola Publikoa	Escuela de Música Pública Segundo Olaeta
Getxoko Andres Isasi Musika Eskola	Escuela de Música Andrés Isasi de Getxo
Hernani Musika Eskola Publikoa	Escuela de Música Pública de Hernani
Irungo Udalaren Kontserbatorioak	Conservatorio Municipal de Irun
Lasarte Musika-Eskola Publikoa	Escuela de Música Pública de Lasarte
Leioako Soinu Atadia Erakunde Autonomoa	Organismo Autónomo Soinu Atadia de Leioa
Aralar Musika eta Kultura Musika Eskola - Lekunberri	Escuela de Música y Cultura Aralar – Lekunberri
Tomas Garbizu Lezoko Udal Musika Eskola	Escuela Municipal de Música Tomas Garbizu de Lezo
Loatzoko Udalerrien Mankominitatea	Mancomunidad de Municipios de Loatzoko
Mungia Musika eta Dantza Eskola	Escuela de Música y Danza de Mungia
Mutrikuko Udal Musika Eskola	Escuela Municipal de Música de Mutriku
Danbolin Musika Eskola – Orio	Danbolin Musika Eskola – Orio
Portugaleteko Musika Eskola	Escuela Municipal de Música de Portugalete
Santurtziko Udal Musika Eskola	Escuela Municipal de Música De Santurtzi
Eduardo Mocoroa Tolosako Mepu	Empu Eduardo Mocoroa de Tolosa
Trapagarango Udal Musika Eskola	Escuela Municipal de Música de Trapagaran
Kulturnieta S.A. – Urnieta	Kulturnieta S.A. – Urnieta
«Luis Aranburu» Udal Musika Eskola – Vitoria / Gasteiz	Escuela Municipal de Música «Luis Aramburu» – Vitoria / Gasteiz



3. ERANSKINA / ANEXO 3

HAUTAKETA-PROZESUAN ONARTZEKO ESKAERA
SOLICITUD DE ADMISIÓN AL PROCESO SELECTIVO

Deialdia / Convocatoria

Deialdiaren izena / Nombre Convocatoria

Norberaren datuak / Datos Personales

NAN / AIZ / DNI / NIE		Izena / Nombre	
Lehenengo abizena / Primer apellido		Bigarren abizena / Segundo apellido	
Jaioteguna (uuuu/hh/ee) / Fecha Nacimiento (dd/mm/aaaa)		Naziotasuna / Nacionalidad	
Sexu / Sexo	E. / M. ☐	G. / H. ☐	
Telefonoa / Teléfono fijo		Telefono mugikorra / Teléfono móvil	
E-posta / Correo electrónico			

- ☐ Baimena ematen diot Bilbao Musika TEArri nire Helbide elektronikoa eta telefono mugikorra erabiltzeko hautaketa prozesu honetan egin ditzakeen jakinarazpenetan.
- ☐ Autorizo la utilización de la dirección electrónica y teléfono móvil aportados para su utilización en las comunicaciones que OAL Bilbao Musika pueda efectuar en el transcurso del proceso selectivo.

Jakinarazpenetarako helbidea / Domicilio a efectos de notificaciones

Herria / País	Lurraldea / Provincia
Bizilekua / Localidad	PK / CP
Helbidea / Dirección	
Ataria, eskailera, solairua, eskua eta atea / Portal, bis, escalera, piso, mano y puerta	

Euskara / Euskera

Profila egiaztatzen dut / Acredito perfil 1 HE / PL1 ☐ 2HE / PL2 ☐ 3HE / PL3 ☐ 4HE / PL4 ☐
--

Ez dut egiaztatzen profila / No acredito perfil ☐

Eskabidea / Solicitud

Aukera ezazu lehiaketaldia egiteko nahi duzun hizkuntza / Seleccione el idioma en el que desea hacer la fase de oposición
Euskara / Euskera ☐ Gaztelania / Castellano ☐



Azterketa egiteko behar dituzun baldintza bereziak eta kausa argitu / Especifique las adaptaciones para realizar el examen

Betebeharrak / Requisitos

Hautaketa-prozesu honetan parte hartzeko, ondoren adierazitako baldintzak bete behar dituzu eta hala adierazi behar duzu dagokion laukitxoan markatuz. Baldintzak betetzen dituztela ziurtatzeko eskatuko zaie prozesua gainditzen dutenei. Behar bezala iragarriko da.

Para poder participar en el presente proceso selectivo deberá reunir los siguientes requisitos, indicándolo así mediante la anotación en su correspondiente casilla. La acreditación de la posesión de los mismos será requerida, una vez finalizada la fase de oposición, a quienes hayan superado la misma, lo que será oportunamente anunciado.

☐ Eskatutako Titulazioa / Titulación requerida: Espezialitate bakoitzari dagokiona (ikus 1. eranskina) / La correspondiente a cada especialidad (ver anexo 1)

Merituak / Méritos

Titulu eta heziketa akademikoak / Formación y titulaciones académicas

Adierazi merezimendu bakoitza lerro batean eta titulazioaren izen ofiziala jarrita. Prestakuntza jarduerak direnean, adierazi ikastaroaren izena ziurtagirian agertzen den bezala, erakunde antolatzailea edo ikastaroa ematen duena, eskola-orduak, asistentzia, aprobetxamendua edota irakasle jardun den, kasuan kasu, eta azkenik, data.

Indique cada mérito en una línea y con la denominación oficial de la titulación. En el caso de las actividades formativas, indique denominación del curso, tal y como figure en el certificado acreditativo, entidad organizadora y/o impartidora, número de horas lectivas, asistencia, aprovechamiento o docencia, según sea el caso, y, por último, fecha de realización.

Tituluak / Titulaciones

Izena / Denominación	Nork Luzatua / Expedido por	Noiz / Fecha



Izena / Denominación	Nork Luzatua / Expedido por	Noiz / Fecha

Kontratazio zerrendetan sarrera / Ingreso en Listas o bolsas de Contratación

- ☐ Hitzarmena sinatu duten Musika eta dantza eskola eta Kontserbatorioetan lan eskaintza jaso ahal izateko, baimena ematen dut nire datu pertsonalak lagatzeko. Bilbao Musika TEAn indarrean dauden oinarri orokorretan ezarritakoaren babesean.

Autorizo la cesión, a efectos de recibir ofertas de empleo, de mis datos personales a las Escuelas y Conservatorios de Música y Danza que han suscrito el convenio, al amparo de lo establecido en las vigentes Bases Generales del OAL BILBAO MUSIKA

- ☐ EZ NAGO AURKA Bilbao Musika TEAk, bide telematikoen bidez, nire eskabidean aipatutako nortasun, titulazio akademiko eta hizkuntza eskakizunak kontsultatu eta egiazta ditzan, bere izapidetze administratiborako, hauek eskuragarri dauden heinean, eta JAKINAREN GAINEAN NAGO. Aurka eginez gero, dagozkion agiriak erantsi beharko dira, eskatzen diren ulean.

QUEDO INFORMADO Y NO ME OPONGO a que OAL Bilbao Musika consulte y verifique por medios telemáticos los datos de identidad, títulos académicos y perfiles lingüísticos alegados en la solicitud para su tramitación administrativa, en la medida de la disponibilidad de los mismos. En caso de oponerse deberá aportar los documentos acreditativos correspondientes.

Lege-informazioa / Información legal

Behean sinatzen duenak ESKATZEN DU hautaketa-prozesu honetan onartua izatea eta bere erantzukizunaren pean AITORTZEN DU eskabide honetan jasotako datuak egiazkoak direla, eskabidean agertzen diren jarraibideen arabera bete duela eskabidea, deialdia arautzen duten oinarri orokorretan eta oinarri berezietan ezarritako baldintzak betetzen dituela, bere osasun egoerari buruzkoak barne. Halaber, hala eskatzen zaionean, eskabidean jasotako datu guztiak agiri bidez frogatzeko konpromisoa hartzen du.

La persona abajo firmante SOLICITA su admisión en el presente proceso selectivo y declara, bajo su responsabilidad, que son ciertos los datos consignados en esta solicitud, que ha cumplimentado la misma de conformidad con las instrucciones contenidas en la misma y que reúne las condiciones exigidas en las Bases Generales y en las Bases Específicas que rigen la convocatoria, incluidas las que se refieren a mi estado de salud, comprometiéndose a probar documentalmente todos los datos que figuran en la solicitud cuando le sean requeridos.

- ☐ ZINPEAN EDO HITZ EMANDA AITORTZEN DUT / DECLARO BAJO JURAMENTO O PROMETO

Eskaera hau sinatu baino lehen, irakur ezazu arretaz datuen babesari buruz atzealdean ezarritako informazioa.

Antes de firmar esta solicitud, lea atentamente la información sobre protección de datos recogida al reverso.

Data / Fecha:

Sinadura / Firma



Datu babesa / Protección de datos

Datu Pertsonalak Babesteko indarrean dagoen eta aplikagarria den araudiarekin bat etorritik, jakinarazten dizugu zure datuak Bilbao Musika TEA-aren titulartasuneko tratamendu-sisteman sartuko direla (IFK: P4800034C; egoitza soziala: Sorkunde, 8. 48006-Bilbo (Bizkaia), eta jarraian zerrendatzen direla haien helburuak, kontserbazio-epeak eta legitimazio-oinarriak. Hala eskatzen duten tratamenduetarako, Bilbao Musika TEAk egin nahi dituen lagapenen berri ere ematen da.

De conformidad con la normativa vigente y aplicable en protección de datos de carácter personal, le informamos que sus datos serán incorporados al sistema de tratamiento titularidad de OAL Bilbao-musika con CIF P4800034C y domicilio social sito en Sorkunde 8 48006-Bilbao (Bizkaia), y que a continuación se relacionan sus respectivas finalidades, plazos de conservación y bases legitimadoras. Para aquellos tratamientos que lo requieran, se informa también de las posibles cesiones que OAL Bilbao Musika tiene previsto realizar.

Tratamenduaren arduraduna	Responsable del tratamiento
Identitatea: Bilbao Musika TEA. IFZ-4800034C. Helbidea: Sorkunde 8, 48006 Bilbao. Telefonoa: 944 164 785. E-mail: zuzendaritza@bilbaomusika.eus Datuen Babesaren Ordezkarria: dpd.cliente@conversia.es	Identidad: OAL Bilbao Musika. NIF- 4800034C. Dirección: Sorkunde 8, 48006 Bilbao. Teléfono: 944 164 785. E-mail: zuzendaritza@bilbaomusika.eus Delegado/a de Protección de Datos: dpd.cliente@conversia.es

Tratamenduaren xedea	Finalidad del tratamiento
<i>Helburua:</i> Erakundeko plazen deialdi publikoei dagokien informazio pertsonalaren kudeaketa. Bitarteko langileen lan poltsa kudeatzea. Kontrol organoek hautaketa prozesuen ikuskaketa egitea. <i>Gordetzeko epeak:</i> Zerbitzua ematen den bitartean eta 5 urte gehiago (lan informazioaren laburpena gorde).	<i>Finalidad:</i> Gestión y tratamiento de datos de carácter personal relativos a las convocatorias públicas de plazas en la organización. Gestión de la bolsa de empleo para interinos. Acciones de supervisión de los procesos de selección por órganos de control. <i>Plazos de conservación:</i> Durante el desarrollo de la prestación y 5 años más (guardar resumen de la información laboral)

Legitimazioa	Legitimación
6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Euskadiko Funtzio Publikoari buruzkoa. DBEOren 6.1.b) artikulua: Tratamendua beharrezkoa da interesduna parte den kontratu bat gauzatzeko edo interesdunaren eskariz kontratuaren aurreko neurriak aplikatzeko. DBEOren 6.1.c) artikulua: Tratamendua beharrezkoa da tratamenduaren arduradunari aplikagarria zaion lege-eginbeharra betetzeko. DBEOren 9.2. a) artikulua: tratamendua beharrezkoa bada tratamenduaren arduradunak edo interesdunak lan- zuzenbidearen eta segurtasun eta babes sozialaren alorrean dituen betebeharrak betetzeko eta eskubide espezifikokoak egikaritzeko. 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren Legearen Testu Bategina onartzen duena.	Ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca. Artículo 6.1.b) del RGPD: el tratamiento es necesario para la ejecución de un contrato en el que el interesado es parte o para la aplicación a petición de este de medidas precontractuales. Artículo 6.1.c) del RGPD: el tratamiento es necesario para el cumplimiento de una obligación legal aplicable al responsable del tratamiento. Artículo 9.2.a) RGPD: el tratamiento es necesario para el cumplimiento de obligaciones y el ejercicio de derechos específicos del responsable del tratamiento o del interesado en el ámbito del Derecho laboral y de la seguridad y protección social. Real Decreto Legislativo 5/2015, de 30 de octubre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley del Estatuto Básico del Empleado Público.



Hartzaileak	Cesión de datos
Bilbao Musika TEA eta bestelako musika eskola publiko zein pribatuen arteko datuen lagapenerako Hitzarmena sinatu duten musika eskolak.	A las escuelas de música suscriptoras del Convenio entre el OAL Bilbao Musika y las escuelas de música de titularidad pública y privada.

Eskubideak	Derechos
Datuen babesari buruz indarrean dagoen eta aplikagarria den araudiak ematen dizkion eskubideen arabera, datuak eskuratzeko, zuzentzeko, tratamendua mugatzeko ezabatze, («ahazteko eskubidea»), eramangarritasun erako eta datuen tratamenduaren aurka egiteko eskubideak baliatu ahal izango ditu, bai eta datuok tratatzeko emandako baimena ezeztatze eskubideak ere. Horrelako, gorago adierazitako posta-helbidera edo erkudengarmendia@bilbaomusika.eus helbide elektronikora bidali beharko du eskaera. Kontrol Agintaritzak eskudunera jo ahal izango du, egokitzat jotzen duen erreklamazioa aurkezteko. OAL Bilbao Musikak jakinarazi du dokumentu hau sinatuta baimen esplizitua ematen duela arestian aipatutako helburuak dituzten datuak tratatzeko..	De acuerdo con los derechos que le confiere la normativa vigente y aplicable en protección de datos, podrá ejercer los derechos de acceso, rectificación, limitación de tratamiento, supresión («derecho al olvido»), portabilidad y oposición al tratamiento de sus datos de carácter personal, así como la revocación del consentimiento prestado para el tratamiento de los mismos, dirigiendo su petición a la dirección postal indicada más arriba o por correo electrónico a la dirección erkudengarmendia@bilbaomusika.eus Podrá dirigirse a la Autoridad de Control competente para presentar la reclamación que considere oportuna OAL Bilbao Musika informa que con la firma del presente documento otorga el consentimiento explícito para el tratamiento de los datos de las finalidades mencionadas anteriormente.



4. ERANSKINA / ANEXO 4

EUSKARA TITULUEN ETA ZIURTAGIRIEN ARTEKO BALIOKIDETASUNAK
EQUIVALENCIAS ENTRE TÍTULOS Y CERTIFICADOS DE EUSKERA

Nafarroako Araudia, 210/2010 Ebazpena, irailaren 13koa, Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuko zuzendari gerentearena (NAO, 117. zenbakia, 2010eko irailaren 27koa).

Normativa en Navarra, Resolución 210/2010, de 13 de septiembre, del Director Gerente del Instituto Navarro de Administración Pública («BON» número 117, de 27 septiembre 2010).

Marco Europeo		INAP		Gobierno de Navarra	EOI Hasta el C 2007-08	EOI Desde el C 2008-2009	EOIDNA	
A1	A1.1	1 Urratsa	Nivel 1 1.Maila	Nivel 1 1.Maila	1.º Curso	1º Curso Básico	1.º Nivel Básico	A 1
	A1.2	2 Urratsa						
A2	A2.1	3 Urratsa	Nivel 2 2.Maila	Nivel 2 2.Maila	2.º Curso	Certificado Nivel Básico	2.º Nivel Básico	A 2
	A2.2	4 Urratsa						
B1	B1.1	5 Urratsa	Nivel 3 3.Maila	Nivel 3 3.Maila	Certificado Ciclo Elemental	Certificado Nivel Intermedio	Nivel Intermedio	B 1
	B1.2	6 Urratsa						
B2	B2.1	7 Urratsa	Nivel 4 4.Maila	Nivel 4 4.Maila	4.º Curso	1.º Curso Avanzado	1º Nivel Avanzado	B 2.1
	B2.2	8 Urratsa				Certificado Nivel Avanzado	2º Nivel Avanzado	B 2.2
	B2.3	9 Urratsa						
C1	C1.1	10 Urratsa	Nivel 5 5.Maila	Nivel 5 5.Maila EGA Euskareren Gaitasun- Agiria	Certificado De Aptitud Ciclo Superior	Nivel C 1		
	C1.2	11 Urratsa						
	C1.3	12 Urratsa						



EUSKARA TITULUEN ETA ZIURTAGIRIEN ARTEKO BALIOKIDETASUNAK
EQUIVALENCIAS ENTRE TÍTULOS Y CERTIFICADOS DE EUSKERA

Euskal Autonomia Erkidegoko araudia, 297/2010 Dekretua, azaroaren 9koa (EHAA, 219. zenbakia, 2010eko azaroaren 15ekoa).
Normativa en el País Vasco, Decreto 297/2010, de 9 de noviembre, («BOPV» número 219, de 15 noviembre 2010).

		B 1	B 2	C 1	C 2
Eusko Jauriaritza	HABE	B1 maila – 1. Maila	B2 maila – 2.maila	C1 maila – 3. Maila	C2 maila – 4.maila
	HAEE – IVAP	1. hizkuntza-eskakizuna	2. hizkuntza-eskakizuna	3. hizkuntza eskakizuna	4. hizkuntza eskakizuna
	Osakidetza	1. hizkuntza eskakizuna	2. hizkuntza-eskakizuna	3. hizkuntza eskakizuna	4. hizkuntza eskakizuna
	Ertzaintza		1. hizkuntza-eskakizuna	2. hizkuntza eskakizuna	
	Hezkuntza Saila		Irakaspostuen 1. HE	Euskararen Gaitasun Agiria (EGA) Irakaspostuen 2. HE	
Nafarroako Gobernua Hezkuntza Saila				Euskararen Gaitasun Agiria (EGA)	
Iparralde Euskararen Erakunde Publikoa				Euskararen Gaitasun Agiria (EGA)	
Euskaltzaindia				D agiria	B agiria
Euskal Jauriaritza	Hezkuntza Saila				
	Hizkuntza Eskola Ofizialak		HLEA (Hezkuntzako Langileen Euskara Agiria)		
Hizkuntza Eskola Ofizialak		3. maila (Antzinako Ikasketa plana) Tarteko Maila	4.maila (Antzinako Ikasketa plana) Maila Aurreratua	5.maila edo euskal gaitasun maila (Antzinako Ikasketa plana) Gaitasun Maila (C1)	